Bizkaia
Egunkaria euskaldunon
EGUAZTENA
2001eko irailaren 12a

BERANGO

Zemendian hasiko dira etxebizitza sozialak eregiteko beharrak

Datozan zazpi urteetan 50 etxebizitza sozial eregiko ditue Berangon. Lehenengo 12 etxebizitza sozialak eregiteko beharrak datorren zemendian hasiko dira. Berangoko Udalak itxitako Lantzarte auzoko lurretan altzauko ditu etxebizitzak Eusko Jaurlaritzak. Miren Dobaran Berangoko alkateak azaldu dauenez, alokatzeko etxebizitzak izango dira. Premina handiak dituen familientzako izango dira etxeak. Halandabe, izena emoteko epea amaituta dago, eta orain Jaurlaritzak erabagi beharko dau nori emon.

Horrezaz ganera, beste 32 etxebizitza sozial eregi gura ditu Udalak Eusko Jaurlaritzaren laguntzeagaz. Intxaurraga eta Lotzarienean eregiteko asmoa dauka Berangoko Udalak.

4

IURRETA

Maputxeakaz lanean jardun dau Lanbide Hezkuntza Zentroak

Iurretako Lanbide Hezkuntza Zentroa eta Maputxe herri indigenak alkarregaz beharrean izan dira. Horren lehenengo emoitzak ikusteko modua be badago. Izan be, Txileko Lebu herrian martxan dago Galdaketa Eskola Tailerra. Jabier Arbeo Iurretako Lanbide Heziketako Zentroko ordezkariak azaldu dauenez, alkarlana orain dala hiru urte hasi zan.

Maputxetarrek formazino arloan gabezia handiak zituela konturatuta, eurakaz behar egiteko programea ipini eben martxan Eusko Jaurlaritzaren laguntzeagaz. Holan, Lebu herriko hiru gazte Durangaldeko enpresetan egon dira praktikak egiten azkenengo zazpi hilabeteetan. Benedicto Melim da euretako bat, eta, azaldu dauenez, «egitasmo arrakastatsua» izan da.

7

BILBO. Udala

SVP sindikatuko kideek «jazarpen politikoa» jasaten dabela dinoe

Poliziaren Euskal Sindikatuko (SVP) kideek «jazarpen politikoaren biktima» dirala salatu dabe. Dinoenez, Bilboko udal agintariek ez ditue euren kritikak onartzen, eta sindikatuari isildu eragin gura deutsie. Eusebio Melero Giza Baliabideak saileko zinegotziak Jose Maria Aparicio sindikatuko bozeroaleren kontra ipinitako diziplina espedienteak eragin dau udaltzain horreen salaketea. Dana dala, atzo eskainitako prentsaurrekoan, udaltzainek Juan Jose Olabarria Herritarren Segurtasun Zerbitzuko arduradunari leporatu eutsien euren kontra hartu diran neurri guztien ardurea. Aparicioren kontrako espedientea igazko zezeilean prentsan agertu zan albiste baten ondorioz zabaldu dala azaldu eben. Izan be, Zubizuriko lauzak apurtzen zituenen kontrako operazinoaren ganean esandakoagaitik zigortu dabela kritikau eben SVPko kideek.

Diziplina espediente batek eragin dau kritikea

2

GIZARTEA. Iralako auzokideen protestea



XOUSE SIMAL

14.000 bilbotar antenen kontra

Iralako bizilagunek telefonia mugikorreko antenen kontrako 14.000 sinadura baino gehiago aurkeztu zituen, atzo, Udalaren Erregistro Nagusian. Antenak urigunetik kanpo ipintea eskatu eben auzokoek. Horren auzo txikian 18 antena eta 4 nodo dagozala salatu eben. Uriburuan berrehun antenatik gora dagozala gogoratu eban Marilu Ugaldek, eta horreetatik baimena gitxi batzuek baino ez daukiela ganeratu eban, 61 gailuk-edo. Auzokoek arduratuta jarraitzen dabe, eta Udalak maiatzeko udal batzarrean onartutako etenaldia aurrera eroateko sortu behar zan batzordean parte hartu gura dabela berretsi eben, atzo.

2